



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko irailaren 30ean

6 ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Akordioa, Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetz-hitzarmen bat eguneratzeko; hain zuzen ere, Nafarroako ubidearen obrak burutu eta finantzatzeari buruzko hitzarmena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sasoikako langileei laguntza emateko Foru Plan bat egin dezan. «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Joko aretoak arautzen duen erregelamenduari buruzko galdera, Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Zozaiia-Legasa bideuneko obrei buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egin (8. or.).
- Sunbillako bigarren faseko obrei buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egin (8. or.).
- Udalek sustatutako azpiegitura turistikoetako inbertsioen gaineko aurrekontu-lerroaren betetzeari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egin (9. or.).
- Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak antolatu prestakuntza programei buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egin (9. or.).
- “Azpiegituretako inbertsioak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egin (10. or.).
- “Merkataritza-suspertzea” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egin (10. or.).

- “Asoziazionismoa sustatzea” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (11. or.).
- “Sustapen jarduketak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (11. or.).
- “Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (12. or.).
- “Udal poligonoendako laguntzak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (12. or.).
- Pasiboen udal araubidea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzeari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (13. or.).
- “Udal plangintzarako dirulaguntza” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (13. or.).
- “Bulegoentzako dirulaguntzak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (14. or.).
- “Dirulaguntzak eta jarduketak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (14. or.).
- “Abelbideak hobetzea” programaren betetze-egoerari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (15. or.).
- Belateko tuneleko azken jarduketei buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (15. or.).
- Itoizko urtegiko hegieta batean lerrokadurak izateko arriskuari buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egina (16. or.).
- Inflazioari eusteko aurreikusitako neurriei buruzko galdera, Félix M^a Taberna Monzón foru parlamentario jaunak egina (17. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideak hautatzeko laugarren arauaren aldaketa (18. or.).

D Saila:
HITZARMENAK

Akordioa, Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmen bat eguneratzeko; hain zuzen ere, Nafarroako ubidearen obrak burutu eta finantzatzeari buruzko hitzarmena

Nafarroako Gobernuak hurrengo hitzarmenari buruzko dokumentazioa bidali du: Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmena, Nafarroako ubideko obrak burutzeko.

Hitzarmen horri buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 162. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Akordioa, Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmen bat eguneratzeko; hain zuzen ere, Nafarroako ubidearen obrak burutu eta finantzatzeari buruzko hitzarmena

(Non), 1999ko ren (e)an

BILDURIK

Alde batetik: Isabel Tocino Biscarolasaga andrea, Ingurugiro Ministroa (maiatzaren 5eko 762/1996 Errege Dekretua), Estatuko Gobernuaren izenean eta haren ordean, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriarekin bat (alegia, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkerarekin), eta Gobernuak Autonomia Politikarako duen Batzorde Delegatuak baimena eman ondoren, 1999ko _____ (e)an egindako bilkuran, orobat Ministroen Kontseiluak 1999ko _____ (e)an egindako bilkuran.

Bestetik, Miguel Sanz Sesma jauna, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Nafarroako Gober-

nuak 1999ko ekainaren 7an harturiko erabakiaren indarrez, hauxe

ADIERAZI DUTE:

1go. 1998ko urriaren 19an izenpetu zutela Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmena, Nafarroako ubidea burutzeko.

Aipatu hitzarmenaren testuan (bigarren klausulan) ezarri direla aipatu bi erakundeen arteko lankidetzarako oinarritzko baldintzak, zertarako-eta Nafarroako ubidearen eraikuntza finantzatzeko; izan ere, Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko banaketa portzentuala 100eko 60 eta 100eko 40 izanen da, hurrenez hurren. Era berean, bi fase aurreikusi direla Nafarroako ubidea egiteko, eta lehen fasea osatzen duen proiektuaren guztizko aurrekontua 58.050 milioi pezeta izanen dela; bigarren fasearena, aldiz, 24.395 milioi pezeta.

1993ko pezeta korrontetan zehaztu zirela lehen faserako aurrekontuak, eta 1990ekotan bigarren fasekoak; era berean, lehen aipatu aurrekontu-kopuruak pezeta konstantetara egokitu behar zirela denboran zehar, hitzarmenak zioenaren arabera.

Aurrekoaz gain, hitzarmenak baduela eranskin bat, zeinetan Nafarroako ubidea eraikitzeke konpromisoak urteka banatzen diren lauki batean.

2gn. Bi aldeek osaturiko jarraipen-batzordea sortu dela hitzarmenaren jarraipen, burutze eta interpretaziorako (zortzigarren klausula); izan ere, eratu ere egin dela aipatu batzordea, administrazio bakoitzak izendatu ordezkariak parekideekin.

3gn. Hitzarmenak hauxe ere aurreikusi duela (bederatzigarren klausula): aurreko klausuletan hitzemandakoak berriro ere aztertu eta egokitu daitezkeela, bi aldeek adostasunarekin, jarraipen-

batzordeak proposatuta, obren garapen benetazkoaren beharrianen arabera eta aipatu bigarren klausulak ezarri dituen finantzaketa-irizpideekin bat.

4gn. Jarraipen batzordeak hauxe erabaki duela: lehen eta bigarren faseen aurrekontuetako kopuruak egunera daitezela proposatzea, hitzarmenaren bigarren klausulan finkatu irizpideen arabera. Ondorioz, Nafarroako ubidea egiteko konpromisoen urtekako banaketa ere egokitu egin da, beste eranskin baten bitartez.

Hitzarmenaren garapena eta betetzea hobetearren, bi aldeak bat etorri eta aurretik hitzartutako klausula eta eranskinaren hurrengo aldaketa hitzartu dutela:

KLAUSULAK:

Lehena. Aurrekontuen kopuruak eguneratzea. Hitzarmenak dioenarekin bat, hitzarmenaren bigarren klausularen bigarren lerroaldean aipatzen diren aurrekontu-kopuruak pezeta konstantetara egokituko dira denboran zehar, eta hauxe ateratzen da: lehen fasearen eraikuntza-proiektuaren guztizko aurrekontua 75.708,6 milioi pezeta da; eta bigarren fasearen guztizko aurrekontua 28.016, milioi pezeta da.

Bigarrena. Eranskina egokitzea. Hitzarmenaren eranskina aldatu egin da, eta akordio honen eranskina jarriko da haren ordean.

Aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, akordio honen ale bikoitza izenpetu dute bertaratu direnek, ondorio bakarrerako, hasieran esandako toki-egunetan.

ERANSKINA

Nafarroako ubidea eraikitzeako konpromisoen urtekako banaketa

	Estatuko Administrazio Orokorra	Nafarroako Foru Komunitatea
Ekitaldia, 1999	600 milioi PTA	400 milioi PTA
Ekitaldia, 2000	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2001	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2002	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2003	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2004	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2005	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2006	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2007	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2008	4,881 milioi PTA	3.254 milioi PTA
Ekitaldia, 2009	3.078 milioi PTA	2,051 milioi PTA
Ekitaldia, 2010	3.078 milioi PTA	2,051 milioi PTA.
Ekitaldia, 2011	3.078 milioi PTA	2,051 milioi PTA
Ekitaldia, 2012	3.078 milioi PTA	2,051 milioi PTA
Ekitaldia, 2013	3.078 milioi PTA	2,051 milioi PTA
Ekitaldia, 2014	2,317 milioi PTA	1,549 milioi PTA
GUZTIRA	62,235 milioi PTA	41,490 milioi PTA

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sasoikako langileei laguntza emateko Foru Plan bat egin dezan

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sasoikako langileei laguntza emateko Foru Plan bat egin dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariok emendakinak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Juan José Lizarbe Baztán “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldearen bozeramaileak, Biltzarraren Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoak aplikatuz, mozio bat proposatu du haren onespina Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Sasoikako langileei laguntza emateko Foru Plan bat eskatzen du mozioak.

Zioen azalpena

Gero eta larriagoa den arazo bat sortu da Nafarroan, lehen sektorean langileak behar direla eta, bereziki zainzuria, tomatea eta mahatsa bezalako nekazaritza-produktuak biltzeko lanetan. Azkenean, Nafarroara eginkizun horiek egitera aldi batez etortzen diren pertsonak egiten dute lan hori, alegia, sasoikako langile deiturikoeak.

Beste garai batzuetan, sasoikako langileak Espainiako hegoaldetik (Andaluzia zein Extremaduratik) etortzen ziren, eta geroztik bilakaera egon da eta Portugaldik etorri izan dira. Ekialdeko estatuetako gatazkek Europako erdialdeko eta ekialdeko pertsona askoren inmigrazioa ekarri zuten, eta, hala, egungo egoerara iritsi gara, non arazo bat sortzen ari den, Afrikako iparraldetik (bereziki Magreb-eko eskualdeetatik) etorritako pertsonen inmigrazioa dela eta.

Egungo arazoak askotarikoak dira, eta nabarmentenak dira sasoikako langileen kontratazioa eta haiei zein haien familiei ostaturia eta gizarte laguntza ematea.

Nekazaritza- eta sindikatu-erakundeak arazoz jabetu eta lanean hasi dira, zenbait herritako alkateekin (Azagra, Mendabia, Cintruenigo...) bilkurak izan eta konpromisoak bilatu dituzte Nafarroako Gobernuarekin Larrialdietarako Plan bat abian jartzeko kanpaina honetarako. Gurutze Gorriaren kanpin-dendak ezarriko dituzte, eta Mendabian, sasoikako langile asko eta asko daudenez, barrakoi aurrefabrikatuak jarriko dituzte, dutxeekin eta zerbitzuekin.

Parlamentuko Talde Sozialistak uste du Nafarroako Gobernuak egun hartu dituen konpromisoak eta neurriak, bereziki etxebizitzari buruzkoak, ez direla nahikoa ez egungo problematikari erantzuteko ez aurreikusitako etorkizuneko arazoei irtenbidea emateko, horregatik ondorengo proposamena onesteko proposatzen dio Biltzarreko Osoko Bilkurari:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 1999ko abenduaren 1a baino lehen Sasoikako langileei laguntza emateko premiazko Plan bat egin dezan. Plan horretako puntu garrantzitsuetako bat izanen litzateke Alokairuko

etxebizitzaren eta sasoikako langileek erabiltzeko bizitokien sarea sortzea.

Aipatutako sarea sortzean, gutxienez, ondorengo baldintzak izan beharko lirateke kontuan:

- Nafarroako Gobernua izanen litzateke, bizigarritasun baldintzak aztertu ondoren, etxebizitza partikular bat sarean sartzearabakiko lukeena. Alokairuaren kostuaren zati bat diruz laguntzeko konpromisoa hartuko luke, aldez aurretik egiaztaurik legezko egoeran dauden langileek darabilte-la, eta alokatutako etxebizitzetan izan litezkeen kalteei eta apurketei aurre egiteko laguntzak emanen lituzke.

- Enplegu emaileak eskabidea zuzenduko dio Nafarroako Gobernuari -bai zuzenean bai nekazaritzako erakundeen, kooperatiben edo sindikatuen bidez-. Bertan eskatuko du etxebizitza bat aloka-

tzeko bere ustategian lan egin behar duten langileei. Nafarroako Gobernuak eskabidea kalifikatuko luke, etxebizitza eman, aldez aurretik lan kontratuak ikusirik, eta eskatzaileen eta onuradunen (langileen) egoera ekonomiko-soziala aztertuko luke, dirulaguntzaren zenbateko zehaztearren.

- Sarean, etxebizitza partikularrez gain, beste alternatiba batzuk ere egonen lirateke, hala nola udalen titularitateko lokalak. Lokal hauek birgaitu daitezke, bai gizarte garantiako enplegu programen bidez bai INEMekiko hitzarmenen bidez bai tailer eskolen bidez, eta urtean zehar beste erabilerara batzuetarako baliatzen ahal dira. Aukera hau errazteko, Nafarroako Gobernuak hitzarmen bereziak egiten lituzke toki entitateekin.

Iruñean, 1999ko irailaren 23an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Joko aretoak arautzen duen erregelamenduari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak joko aretoak arautzen duen erregelamenduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du erantzun diezaioten:

Irailaren 13ko NAO n argitaratu da 270/1999 Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Joko Aretoen Erregelamendua onesten duena.

Aipatu arauak, dirudenez, 1989ko Jokoari buruzko Legea behar bezala garatzeko zeuden erregelamendu-hutsuneak bete nahi ditu. Aipatu arauan, halaber, azpimarratzekoa da aretoen gutxieneko azaleraren gehikuntza; aldi berean, makina bereziak baimendu dira, fidantzen zenbaterakoak gutxitu, ordutegiak malgutu eta edari zerbitzua ere izateko aukera ematen da.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer arrazoi izan ditu Nafarroako Gobernuak joko areto handien baldintzak nabarmen hobetzeko, areto txikien kaltetan?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: Juan Cruz Alli Aranguren

Zozaia-Legasa bideuneko obrei buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Zozaia-Legasa bideuneko obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari

atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak orain dela gutxi esleitu ditu Zozaia-Legasa bideuneko obrak.

2. Zein enpresek hartu dute parte horretarako abian jarri zen esleipen prozesuan?

3. Zein enpresari esleitu zaizkio obrak? Zer irizpide erabili dira?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Sunbillako bigarren faseko obrei buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Sunbillako bigarren faseko obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari

atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak orain dela gutxi esleitu ditu Sunbillako 2. faseko obrak.

2. Zein enpresek hartu dute parte horretarako abian jarri zen esleipen prozesuan?

3. Zein enpresari esleitu zaizkio obrak? Zer irizpide erabili dira?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Udalek sustatutako azpiegitura turistikotako inbertsioen gaineko aurrekontu-lerroaren betetzeari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak udalek sustatutako azpiegitura turistikotako inbertsioen gaineko aurrekontu-lerroaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Parti-

do Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak lagundu egin ditu azken urteotan udalek sustatutako azpiegitura turistikotako inbertsioak.

2. Jakin nahi da laguntza hori azken 5 urteotan jaso duten entitateen zerrenda.

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak antolatu prestakuntza programei buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak antolatu prestakuntza programei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Parti-

do Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Zenbatekoa da Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak abian dituen prestakuntza programetan hitzartutako gastua?

2. Zer ikastaro egin dira? Non egin dira? Zenbat lagunek hartu dute parte?

3. Zein entitatek eman ditu ikastaro horiek? Nola banatu da gastua?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Azpiegituretako inbertsioak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Azpiegituretako inbertsioak” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurten 100 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Azpiegituretako inbertsioak” programaren baitan (98013 kodea).

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 70,13koa da.

3. Zer jarduketa sustatu dira urtean zehar? Zein da horietako bakoitzaren zenbatekoa?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Merkataritza-suspertzea” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Merkataritza-suspertzea” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurten 125 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Merkataritza-suspertzea” programaren baitan (98041 kodea).

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 100 da.

3. Zer jarduketa sustatu dira urtean zehar? Zein da horietako bakoitzaren zenbatekoa?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Asoziazionismoa sustatzea” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Asoziazionismoa sustatzea” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurten 45 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Asoziazionismoa sustatzea” programaren baitan (31290 kodea).

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 0koa da.

3. Zer jarduketa sustatu dira urtean zehar sektoreari laguntzeko? Zergatik da hutsa betetze-maila?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Sustapen jarduketak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Sustapen jarduketak” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurten 525 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Sustapen jarduketak” programaren baitan (31200 kodea).

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 5,05ekoa da.

3. Zer jarduketa sustatu dira urtean zehar? Zergatik da hain apala betetze-maila?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurten 211.147.500 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” programaren baitan.

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 55,19koa da.

3. Zer jarduketari eta zer enpresari eman zaio laguntza kontusail horren kargura?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Udal poligonoendako laguntzak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Udal poligonoendako laguntzak” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurten 80 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Udal poligonoendako laguntzak” programaren baitan.

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 0 da.

3. Departamentuak uste al du toki poligonoetako inbertsio gehiagorik ez dela bear?

4. Zer asmo du departamentu horrek udal poligonoetako inbertsio proiektuak direla eta? Zeintzuk dira esku hartzeko lehentasunak?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Pasiboen udal araubidea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzeari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak pasiboen udal araubidea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Nafarroako udalek duten zamarik handienetakoa montepioena da.

2. Zer ekimen burutu ditu Toki Administrazioako Departamentuak pasiboen udal araubidea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzearren?

3. Zer harreman izan ditu Gizarte Segurantzarekin? Halakorik badago, aurreikusitako egutegia jakin nahi da.

4. Zer harreman izan ditu NUKFarekin eta langileen ordezkariekin hori dela eta?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Udal plangintzarako dirulaguntza” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Udal plangintzarako dirulaguntza” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurten 18 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Udal plangintzarako dirulaguntza” programaren baitan (11330 kodea).

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 0koa da.

3. Uste al du Gobernuak ez dela jada beharrezkoa udal plangintzak garatzeko pizgarriak ematea?

4. Zenbat dira gaur egun hirigintzako plangintza figurarik ez duten udalak?

5. Zein udalek ez dute plangintzarik?

Iruñean, 1999ko abuztuaren 26an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Bulegoentzako dirulaguntzak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Bulegoentzako dirulaguntzak” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurten 112 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Bulegoentzako dirulaguntzak” programaren baitan (11440 kodea).

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 0koa da.

3. Uste al du Gobernuak finantziazio-lerro hori ez dela jada beharrezkoa?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Dirulaguntzak eta jarduketak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Dirulaguntzak eta jarduketak” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurten 996 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Dirulaguntzak eta jarduketak” programaren baitan (12350 kodea).

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 96,9koa da.

3. Zer jarduketa sustatu dira urtean zehar? Zein da horietako bakoitzaren zenbatekoa?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

“Abelbideak hobetzea” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Abelbideak hobetzea” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurten 26,3 milioi pezetako gastua egitea aurreikusten zuen, “Abelbideak hobetzea” programaren baitan (12250 kodea).

2. Gobernuak berriki jakinarazi du zein den aurrekontuaren betetze-mailaren egoera, eta, horren arabera, baimendu den gastu-konpromisoa % 70,36koa da.

3. Zer jarduketa sustatu dira urtean zehar? Zein da horietako bakoitzaren zenbatekoa?

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Belateko tuneleko azken jarduketei buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Belateko tuneleko azken jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, “Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari, idatziz erantzun diezaioten:

1. Belateko tunela itxita dago abuztuaz gero, egituran antzemandako akatsak direla-eta; izan ere, maiatzaren 28an pertsona batek zauri arinak izan zituen horien ondorioz.

2. Orduan esan zenez, lanak ez ziren mugatu-ko egun hartan pertsona horri zauri arinak eragin zizkion askatze hura behin betikoz konpontzera; aitzitik, tunelaren beste zati batzuetan ere jarduteko asmoa zegoen, zalantzak zituztelako alboko lurren egoerari eta haien sakatzeko intentsitateari buruz.

3. Zein izan da egindako jarduketaren kostua?

4. Noren erru dira antzemandako arazo horiek? Obra zuzendaritzarena? obraren exekuzioarena? Ala uste al du Departamentuak obra gaizki egitea ez dela inoren ardura?

5. Erruak erru, ba al du Departamentu horrek bere jarrera bermatzen duen txosten teknikorik? Hala bada, txostenen kopia ere eskatzen dut.

6. Departamentuaren ustez, egindako jarduketek behar bezala bermatzen al dute bertatik ibiltzen diren pertsona eta ibilgailuen segurtasuna?

Iruñean, 1999ko irailaren 22an

7. Uste al du departamentuak epe motz edo ertainean atzera ere egin beharko direla lanak tunelean?

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Itoizko urtegiko hegietako batean lerrokadurak izateko arriskuari buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Itoizko urtegiko hegietako batean lerrokadurak izateko arriskuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1. Komunikabideen bitartez jakin dugu Nafarroako Gobernuak eskatuta txosten bat egin zela orain hamar urte. Txosten hori Ingurugiro Ministerioak dauka, eta bertan agerian uzten da Itoizko urtegiko ezker aldearen oinarria den mendi hegian lerrokadurak izateko arriskua dagoela.

2. Gure taldeak hauxe jakin nahi du: ba al zuen txosten horren berri Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak? Ba al dauka Departamentuak txosten hori?

3. Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu Departamentu horrek obraren alde horretako segurtasuna bermatzearen?

Iruñean, 1999ko irailaren 22an

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

Inflazioari eusteko aurreikusi diren neurriei buruzko galdera

FELIX M^a TABERNA MONZON FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an egindako bilkuran, Félix M^a Taberna Monzón foru parlamentario jaunak inflazioari eusteko aurreikusi diren neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Gure Komunitateak inflazio-tasa altua duela gauza ezaguna da; horrekin batera, kontuan izan behar da Ekonomi Ministro Rato jaunak esandakoa, alegia, autonomia-erkidegoek, beraien lurraldetan, badituztela inflazioa kontrolatzeko eskumenak.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

Zer neurri aurreikusi ditu Gobernuak gure Komunitateko inflazio-tasa altua kontrolatzeko?

Iruñean, 1999ko irailaren 22an

Foru parlamentarioa: Félix M^a Taberna Monzón

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideak hautatzeko laugarren arauaren aldaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 20an egindako bilkuran, Bozerramaileen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1go. Irailaren 13an onetsi zituen Mahaiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideak hautatzeko arauak (1999ko irailaren 17ko 3. zk.ko NPAO). Bada, aipatu arauetatik

laugarrena aldatzea; izan ere, izangaiak aurkezteko epea urriaren 4ko 09:30etan bukatuko da.

2gn. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 175 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--